

euskaldunon istorioak

Aurten 700 urte beteko dira Lekeitioko sorrera gutuna indarrean jarri zenetik. Behinola, Maria Diaz de Haro Bizkaiko andreak aitortu zuen herriak 700 urteko lekukotza ederra eman eta ematen du, orain ere, euskararen mesederako

Andres M. Urrutia Badiolaren erreportajea

Lekeitio eta euskara: lau mende (XVIII-XX) erreskadan

MENDIOLA itsas kapitaina eta Bengolea emaztea izan ziren lehenak, euren jatorrizko Lekeitio Herrian jesuiten Kolegioa sortzeko baliabideak jarri zituztenak.

Urtea 1688a zetorren eta sorkuntza hori bideratzeko baldintzak zehazturik, berehala onartu zuten jesuitek proposamen hura eta kolegioa eta eliza eratu, hain zuzen ere, gaur Kultura etxea eta Konpainiako eliza dauden inguruan.

Begien bistakoa da garai hartan jesuitek zeukaten ospe eta sona handia irakaskuntzan. Azkoz ezezagunagoa, oster, jesuitek izan zuten jokabidea irakaskuntza hori aurrera eramateko hur-hurreko gune elebidunetan, hala nola herri euskaldunetan.

Jesuitek herriz-herriz misioetan ibiltzen ziren aldi horretan. Horrek aparteko aukera ematen zien bateko eta besteko euskarak ezagutzeko eta, azken batean, euskara bera, misioetarako behar zutena idatziz jasotzeko eta islatzeko.

Badirudi katekesia ere euskaraz egiten zela konpainiak Euskal Herrian zituen kolegioetan, Jose Malaxechevarria jesuitak adierazi bezala (*La Compañía de Jesús por la instrucción del País Vasco en los siglos XVII y XVIII*, Donostia, 1926). Lekeition, esaterako, XVIII. mendean halako maisu batzuk (*ludi magistri*) agertzen dira tankera horretako zereginetan, besteak beste, Ochoa de Brebilla ondarroarra, Lucas Basurto, basauriarra, Gabriel Ugarriza lekeitiarra eta Domingo Ibasea berriatuarra, guztiak jesuiten ordenako anaiak.

Beude, beraz, euskaldunen izenetan horien gomuta. Egia esan, XVIII. mendean Larramendi gipuzkoar jesuitak agerian zituen ezarritako (*El imposible vencido*, 1729) euskararen errealitate idatzia eta hizkuntzaren gramatikalizazioa. Ahoz ez ezik, idatziz ere euskarari lekua eman zioten jesuitek eta Larramendi, Kardabera eta Mendibururen esanak, eginak eta idatziak hortxe dira.

Bidea, hala ere, moztu eta zapuztu egin zen erro-errotik jesuitak erbestera izan zirenean Espainiako erresumetatik (1776). Artean, aipatzeko modukoa da, Lekeitiori dagokionez eta jesuiten artean, Agustín Basterretxea zena (1700-1761). Lekeitioko kolegioan hasi zituen bere ikasketak eta 1716. urtean jesuitetan sartu, aita jesuita 1734. urtean ondu arte.



Gerra aurreko Euskaltzaindia. Lehena ezkerretik jezarrita, Juan Bautista Eguzkitza (1875-1939) Lekeitioko Latinidade Katedraren ardu.



Resurrección Maria Azkue euskal kulturaren aitaponteko lekeitiarra (1864-1951) bertako plazan..

Harenak dira obra laburrak, batez ere, bertsoetan, *Jesu-Christo gure jaunaren pasioa* (1777). Jesuitak erbestera ateratzearekin ez ziren amaitu, alabaina, lekeitiar jesuita euskaltzaleen arnasa eta gogoa. Askoz geroago, hain zuzen ere, etorri zen euskararen letren arlora aita Kandido Basabe (1867-1928), hasieran abade izateko asmo zuena eta gero jesuita sartu zena.

Basaberen tankera honetara zehazten du Mikel Zarate zenak: “lan ederra aita Kandidorena San Inazioaren ejerzizioak euskeratu eta azaldutea! Lan ederra eta euskera argi eta ederrean gainera. Euskera ona darabil aita Kandidok, gehienetan. Gai sakona eta euskera ona”. Adibidez, San Inazioaren ospe handiko pasarte hura nola euskaratu zuen: “Zer deutso gizonari, mundu guztia irabaziarren, bere arimea galtzen badau?”

Izan ere, aita Kandido gerogarreneko Resurrección Maria de Azkue-ren laguna izan zen, bera baino nagusiagoa izan arren.

Aurrekoak gorabehera, begien bistakoa da Lekeitiok betidanik euskarari erakutsi dion atxikimendua. Izatez, hurrengo mendean, XIX. men-

dean, Lekeition gertatu zen osterantzeko ekimen sozial eta kultural garrantzitsua, Lekeitiori, beste behin ere, letrak eta zientziak hurreratu zizkiona. Hura Uribarren-Abaroa Fundazioa izan zen, hainbat aurreakuntza egin zituen herriaren bizi-moduaren aldetik eta herritarren hezkuntza eta hizkuntza ahaztu ez zituen.

Fundazio horren eskutik etorri ziren gerora garrantzia handikoak izango ziren Nautika Eskola eta Latindade Katedra, bi-biotan aritu zirela hiru izen esanguratsu euskal letretan: Eusebio Azkue (1813-1873), Juan Bautista Eguzkitza (1875-1939) eta Resurrección Maria de Azkue (1864-1951). Hiru horien lerrokadan etorriko zen baita ere Eusebio Erkiaga (1912-1993) idazle eta poeta.

Lehenengo hiruak zuzenean zein zeharbidez Lekeition eratu zen gune kulturalaren partaide izan ziren. Eusebio Azkueren kasuan *Parnasorako bidea* da bere obra nagusia, olerki sorta baten bidez egina eta haren biltzailea, Resurrección Maria de Azkue semea izan zela. Esan gabe doa, semeak artez, zentsuz -eta ukituz- bilbatu zituela aitaren bertsook denon eskura geratu zitezten. Honatx haren bertsoa Lekeitiori buruz: “Emen dagoz Bermeo / mutil abila-kaz / eta Ondarroa andia / arrantza-leakaz. / Emen da Lekeitio / leorrez eta itsasoz / bardinik eztaukana / bere alboan inos”.

Eusebio Azkuek aurrean jartzen digu orduko Lekeitioko euskalgintza giroa, Konpainiako eliza, Latindade katedra eta Nautika eskolan gauzatzen dena. Lehenengora joaten ziren gerora abade mintegira joango zirenak letren munduan lehen pausoak ematera. Bigarrene-ra, oster, bertako eta inguruko gazte asko ikasle, lehorrekoari agur egin eta itsas pilotu, kapitain eta makinista izateko gogoa aurrera eramateko asmoarekin. Nautika ikasketan Eusebio Azkue maisu eta irakasle.

Latindade katedran 1904. urtetik aurrera, Juan Bautista Eguzkitza lemoarra irakasle eta euskal idazlea, geroako sortuko zen Euskaltzaindiaren barnean euskaltzain osoa eta Resurrección Maria de Azkueren kidea. Eguzkitza, sermoilari aparta, Lekeition hogeita hiru urte bizi zena, eta euskararen hainbat arlotan berritzailea izan zena, batik bat, soziologiaren ikuspegitik. *Gizarte auzia* (1935) idatzi zuen, gizarte arazoetan pil-pileko jakituriak euskaraz emanez.

Hona hemen Resurrección Maria de Azkuek idatzitakoak Durangon, 1921. urtean, *Lehen Euskal Egunean* Eguzkitzaren sermoia entzun ondoren: “Euskaldunak: Goizean Meza bitarteko itzaldi ederra entzueran, neure barruan ninoan nik”; “ai nok leukean eskueran gramofonu uts bat, bera ementxe erabilteko eskubidea ta yasa! Neure lankide maite onen itzaldi auxer artuta estualdi onetan erara nasaituko nintzateke”. “Bene-benetan dirautsuet: bigira onen ta euskalegun onen amaitzat bere bizikoa izango genduan. Nik euskaldunak esanda gero, neure gramofonu

euskaldunon istorioak



Lekeitioko ikuspegia.



Eusebio Erkiaga (1912-1993) lekeitiar euskal idazlea.

Uribarren-Abaroa Fundazioaren eskutik etorri ziren garrantzia handikoak izango ziren Nautika Eskola eta Latinidade Katedra

Resurreccion Maria, aita baino ikuspegi eta molde zabalago izan zuen eta euskalgintza modernoaren aitapontekoa izan zen

beteari zotza kendu ta ederto entzungo zenduezan barriro Eguzkiza jaunaren itzak. Tenor bati bere gora-goraka luzeak entzunda gero frantzesak bis, alemanak Wieder, erdaldunak que se repita esanda, bigarrenez oi u eragiten dautse. ¿Iztun bati (sermolari bati) zegaitik ez? Oiturarik ezto gu ta nik gaur bere neurez ekin bearko”.

Azkuenetik Azkuenera, Resurreccion Maria izan zen hurrengoa. Aita baino ikuspegi eta molde zabalago izan zuen eta euskalgintza modernoaren aitapontekoa izan zen. Haren eraginez etorri ziren gramatika, hiztegi, abestegi eta gainerakoak, horien artean Euskaltzaindiaren sorrera. Guztietan ugari-ugariak Lekeitioko aipamenak. Berak ere, noizbait idatzi zituen honelako hitzak bere *Ardi galdua* gertirudian (1918): “Ni jayo nintzan uri onetako mintzoa Euskalerriko una (muña) balitz ¡jnire poza, lenen ikasi nituen itz aye (berbatsu arek) arrointzat hartuta, lan ta lan egitea!”.

Agerian zen orduko giro kulturalak gazteengan izan zuen eragina. Euskal teatroa, euskal prentsa eta



Konpainiako Eliza Lekeition. Alboan, R.M. Azkue jaio zeneko etxea.

abar, arian-arian bada ere, bazetozen eta lekeitiarren artean hasita zegoen olerkigintzan eta antzerki kontuetan Eusebio Erkiaga gaztea. Olerkiaz zein berba lauaz idazle dabil *Euzkadi* egunerokoan, Euskal orria sailean, Lekeitioko berriak zabaltzen Bizkai eta Euskal Herri osora. Batzokiko gazteriak euskal antzerti abertzalea bultza eta bultza. Han ere Erkiaga, eta Rufo Atxurra,

lekeitiar errimea, lekeitiarren historia agerikoa zein isilpekoa goitik behera ezagutu eta menderatu zuena. Aintzat hartzeko modukoa ere Ramon Erze apaiza, *Ekin* euskal asteroko zuzendaria gerra aurrean, gai sozialetan aditu eta jakitun.

1936. urtean *Euskaltzaleak* elkar-teak deituta, badator Lekeitiora VII olerti eguna, antolatzaileen artean Eusebio Erkiaga dago. Tartean Laua-

xeta, Labaien, Ariztimuño eta Resurreccion Maria de Azkue, egitarauan barruan dago berebiziko omenaldia Azkuetarrei, erakusketa eta guzti. Erkiagaren ustez: “Lekeitio’k halakoren baten be, goratu ditu bere seme argiok”.

Gerrak horiek denak birrindu eta zapuztu egin zituen. Gerra amaitu ondoren neke eta lor zegoen euskalgintzaren baratza. Resurreccion Maria de Azkue Bilbon Euskaltzaindian lan isila egiten Nazario Oleaga idazkariarekin batera, inolako kanpo agerpena egin ezinean. Eusebio Erkiaga ere Bilbon jendearen aurrean argitaratu ezinik eta etxe barruan lanean. Lekeition giro hura deseginda, Nautika eskola desagertuta eta Latinidade katedraren Eguzkitza irakaslea erbestertua eta hila.

Urak, nolanahi ere, aurrera etorri eta itsas beherari itsas gora dagoen moduan, Lekeition ere euskara bere ageriko espazioak berreskuratzen hasi zen. Aldi berean eta debekuen kontra, euskara bizi-bizirik zebilen herritarren aho mihietan, betiko ohiturari eutsiz.

Aurten 700 urte beteko dira Lekeitioko sorrera gutuna indarrean jarri zenetik. Behinola, Maria Diaz de Haro Bizkaiko andreak aitortu zuen herriak 700 urteko lekukotza ederra eman eta ematen du, orain ere, euskararen mesederako. Euskara izan da herrian erroturik egon dena, erakutsiz herri baten nortasunean oinarrituriko hizkuntza dela euskara, mendeetan zehar izaniko gorabehera historikoen gainetik bizirik dagoena eta bizitzeko asmo sendoa duena.

700 izan Lekeitio! ●



Eusebio Maria de Azkue (1813-1873) Lekeitioko Nautika ikasketen irakaslea.

EGILEA

ANDRES M. URRUTIA BADIOLA



Zuzenbidean doktorea Deustuko Unibertsitatean. Bilboko Notarioa eta Deustuko Unibertsitatearen Zuzenbide Fakultateko irakaslea

(1989-2021). Zuzenbidearen Euskal Akademiaren kide eta burua. Euskaltzaindiaren euskaltzain osoa eta burua. Euskera eta Jado aldizkariaren zuzendaria eta Egiunea aldizkariaren zuzendari kidea.

**JAKIN
ESCAPE ROOM**

HISTORIA ZURE ESKUETAN
LA HISTORIA ESTÁ EN TUS MANOS

Aukeratu bi misio hauen artean eta bihur zaitez agente sekretu!! ¡¡Elige entre estas dos misiones y conviértete en agente secreto!!

Operación Kurrutia

Operación Pasa Abaroa

Gertaera historikoetan oinarritutakoak. Aukeratu: euskaraz edo gaztelaniaz. Basados en hechos históricos. Elige el idioma: euskera o castellano.

NON GAUDE? ¿DÓNDE ESTAMOS?

Tere Verdes Pasabidea z/g. Pasaje Tere Verdes s/n
48007 Bilbao
Sabino Arana Fundazioa

747 488 000
escaperoomjakin.eus

ORDUTEGIA: Asteartetik ostiralera: 10:00etatik 12:00etara eta 17:30tik 20:30ra. Larunbat, igande eta jaiegunetan 11:00etatik 13:30ra eta 17:30tik 20:30ra.

HORARIO: De martes a viernes de 10:00 a 12:00 y de 17:30 a 20:30. Sábados, domingos y festivos de 11:00 a 13:30 y de 17:30 a 20:30.